


# PR-Gi 2002

## Intsustiko itzulia

**12,7 Km / 4 h 15 min**

### NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

### RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




## MIDE

| Ingurunea Medio | Ibilbidea Itinerario | Desplazamendua Desplazamiento | Ahalegina Esfuerzo | MIDE ordutegia Horario MIDE |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 2 | 3 | 4 h 15 min |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke** El medio no está exento de riesgos | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena** Sendas o señalización que indica la continuidad | **Marcha por caminos de herradura** Mandabideak | **3tik 6 ordura bitarteko ibilaldi jarraia** De 3 a 6 horas de marcha efectiva | (( 112 )) SOS DEIAK |

+ info MIDE
www.mide.montanasegura.com

## Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

## + INFO

Praktika onen dekalogoa
Decálogo de buenas prácticas

www.gipuzkoanatura.eus
Trackak eskuragarri
Tracks disponibles

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Ikuspegi panoramikoa**
Vista panorámica

**Aisia-lekua**
Area recreativa

# PR-Gi 2002

## Intsustiko itzulia

Labur esanda, ibilbidea atsegina dela esan daiteke. Ataungo Domoa deritzan egitura geologikoaren inguruan egiten da ibilbide hau. Baserrietatik hurbil dauden baso eta belardiek osatzen dute paisaia, Aralar eta Txindoki aurrez aurre. Miresgarria da nolako pendizetan eta nolako lanak eginez atera duten bizimodua gure baserritarrek eta zeinen baserri ikusgarriak eraiki dituzten lur zail eta gogor hauek landuz eta moldatuz.

Resumiendo en una palabra, se puede decir que este recorrido es sobre todo agradable. El camino que se realiza en torno a la estructura geológica denominada Domo de Ataun, está muy vinculada al medio rural. Desde la cercanía de los caseríos, las plantaciones de bosques y los pastizales irán conformando el paisaje que nos encontraremos, con una presencia notoria de la Sierra de Aralar y con la mirada puesta en el monte Txindoki. Admirad en que pendientes y trabajando de que manera nuestros baserritarras han sido capaces de llevar adelante su modo de vida, construyendo magníficos caseríos y trabajando y moldeando esta tierra tan exigente.

## Interes puntuak | Puntos de interés

a



ATAUNGO DOMOA: Ataunen Aitzarte moduan ezagutzen den eta Jentilbaratza, Aizkoate, Aizkorrandi, Arastortz, Agautz, Leizadi, Asundi, Loibideko Mailoak eta Ikarandieta mendiek osatzen duten goi-ordoki bitxi honi deritzaio domo. Orogenia piriniarraren ondoriozko indarrek bertako indar perpendikular batzuekin elkarreraginez, lurrazala gorantz altxatu zuten kupula (domo) itxurako mendi bat sortuz.

DOMO DE ATAUN: Se denomina domo a la meseta formada por los montes Jentilbaratza, Aizkoate, Aizkorrandi, Arastortz, Agautz, Leizadi, Asundi, Loibideko Mailoak e Ikarandieta, conocida en Ataun como Aitzarte. Las fuerzas derivadas de la orogenia pirenaica unidas a determinadas fuerzas locales levantaron la superficie formando un monte con forma de cúpula (domo).

b



INTSUSTI: Inguru hau Aralar Natura Parkeko eta Ataungo Domoko sarreretako bat da. Aralegiko zelaitik hurbil eta Arastortz eta Agautz mendien artean dago. Bertan zuhaizti botaniko bat, iturri bat eta aisialeku bat daude. Intsusa (Sambucus sp.) botikak eta sendagaiak egiteko oso egokia omen da, hala ere, duen usain sarkorraren ondorioz, herioa zekarrela uste zen.

INTSUSTI: Es una de las entradas al Parque Natural de Aralar y al Domo de Ataun. Se sitúa cerca del prado de Aralegi y entre los montes Arastortz y Agautz. En esta zona hay una arboleda botánica, una fuente y un área recreativa. El saúco (intsusa en euskara, Sambucus sp.) debe ser muy adecuado para medicamentos y remedios, aun así, por el penetrante olor que desprende, se creía que portaba la muerte.

c



INTSUSTIKO ITURRIA: 2017an iturri honek 50 urte bete zituen. Garai batean, Intsusti deituriko mendialde hau, Ataun, Zaldibia eta Lazkaoko herrien artean kudeatzen zuten. Iturria auzolanean eraiki zen. Gaur egun ezagutzen dugun itxura 1967an eman zitzaion Imaz harginaren zuzendaritzapean Ataungo gazte talde batek egindako lanari esker. Bertan Lazkao Txikiren bertso batzuk daude iturriari eskainiak.

FUENTE DE INTSUSTI: En 2017 esta fuente cumplió 50 años. Antaño, esta zona montañosa llamada Intsusti, se gestionaba entre los pueblos de Ataun, Zaldibia y Lazkao. La fuente se construyó en auzolan (trabajo comunal). El aspecto que tiene hoy en día se le dio en 1967 gracias al trabajo realizado bajo la dirección del cantero Imaz y la ayuda de un grupo de jóvenes de Ataun. En la fuente se pueden leer unos versos de Lazkao Txiki.

d



ARALEGI BASERRIAK: Ataunen, Ataun eta Lazkao artean, Aralegi lepo inguruan eta Arastortz mendiaren azpian, Aralegi auzunea dago San Martin auzoan. Bertan lepoarekin izena elkarbanatzen duten baserri batzuk daude: Aralegiaundi, Aralegibekoa, Aralegiberri eta Aralegigoikoa. Baserrien jatorriaren inguruan hainbat teoria daude baina, badirudi, gaur egungo itxurarekin bandokideen gerrateak amaitu ondoren eraikitzen hasi zirela.

CASERÍOS ARALEGI: En Ataun, entre Ataun y Lazkao, en la zona del collado de Aralegi y bajo el monte Arastortz, se encuentra la barriada de Aralegi del barrio San Martin. En este lugar hay varios caseríos que comparten el topónimo con el collado: Aralegiaundi, Aralegibekoa, Aralegiberri eta Aralegigoikoa. En torno al origen de los caseríos existen varias teorías, pero parece ser que el tipo de construcción actual comenzó al finalizar las guerras de banderizos.

arazi
ATAUNGO UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Mendizale Federazioa